48 24


ATXARREKO KARST

Urdaibaiko itsasadarra, ekialdetik, nagusiki, kareharriez inguratuta dago eta horietan karstiar modelatze tipikoa garatzen da.

Hura ortoargazki baten bidez ikustea ia ezinezkoa da, Kantaurikoaren artadien baso trinko bat gainjarrita dagoelako, kareharrizko substratu batek eragindako inguru lehor batera egokituta, non zonaldetik zehar zabaltzen diren lurpeko hodien sareak euri urak hartzen dituen.


Dolinak alderantzizko kono itxurako sakonuneak dira, kareharrien azalera disolbatzearen eraginez sortuta; oro har, barruan buztin apur bat izaten dute (terra rossa), harkaitz bera disolbatzeak eraginda. Bi edo dolina gehiagok bat egitean ubala bat sortzen da. LIDAReko argi sorta desberdinen itzulerei esker, estalki begetalpeko puntuen neurriak lor daitezke, eta horrek dolina ugari aurkitzeko aukera ematen du.

Horiek, bereziki, Atxarreko gune beheratuenetatik zabaltzen dira. Azken hori argi ikus daiteke geoEuskadi erremintak eskaintzen duen “LIDAR 2012 hondo hipsometrikoa” geruza gainjarrita, edo baita LIDAR informazioa barne hartzen duen “oinarrizko kartografia” aukerarekin ere.




Litologia.1. Kareharriak 2. Margak 3. Argilitak eta/edo limonitak. 8. Azalerako metaketak Urdaibai itsasadarrean.

Litologia+itzalen mapa 2012. Iturria: Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco, geoEuskadi.



Atxarreko Karsten kokapena Urdaibai itsasadarreko ekialdea itxiz (Bizkaia).



LIDAR 2012 hondo hipsometrikoa + Maila kurbak. UTM 30N ETRS89 // X: 527657 m // Y: 4802942 m. Dolina ugarik ikusten dira, baina horiek ezin dira ortoargazkian atzeman, begetazioak estalita daudelako.